

# KANBOKO HERRI BILTZARRAREN 2020ko EKAINAREN 11ko BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak; Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatcegy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Christian Devèze, Auzapeza.

Ahalordeak: Christian Devèze jaunak Eliane Aizpuru andereari.

Auzapeza ezin etorria denez, Eliane Aizpuru andereak du saioaren lehendakaritza hartzen.

## – Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

## – Iragan biltzarraren aktaren onarpena.

Iragan 2020ko maiatzaren 28ko biltzarraren aktari buruzko oharrik ezean, akta bozketara eman eta aho batez onartua izan da.

## 4 – Herri Biltzarrak auzapezari onartzen dizkion delegazioak.

Herriaren kudeaketa ongi egin ahal izateko ezinbestekoa da Auzapezak Herri Biltzarraren gaitasun batzuk ukatea, honek zehaztuko dituen baldintzetan. Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, Auzapezak eskumen delegazio horren esparruan hartu dituen erabakien berri emanen dio biltzarrari.

Aizpuru andereak Auzapezak Herri Biltzarraren delegazioz izanen dituen eskumenak irakurri ditu.

Duthilleul jaunak galdetu du zer maiztasunekin emanen zion erabakien berri biltzarrari, jakinez aitzineko agintaldian Herri Biltzarren arteko denbora aski luzea zela.

Aizpuru andereak ihardetsi dio ezinezkoa dela aurretik herri biltzarren maiztasuna aurreikustea eta halere herri biltzarra gutxienez hiruhilekoan behin bildu behar dela. Eta erantzun zehatzagoa ukanen duela berantago.

Duthilleul jaunak galdetu du zergatik merkatu publiko eta esparru-hitzarmenen emendakinei buruzko erabakien gaineko 4. puntua aldatua izan den. Ohartarazten du « hasieran izenpetu den kontratuaren zenbatekoan %5ez baino gehiago eragiten ez duen... » aipamena kendu dela. Horrek erran nahi du Auzapezak erabaki oro har dezakeela, baldin eta aurrekontuaren mugetan egoten den artean, eta muga horiek gainditzen badira orduan Herri Biltzarraren onespena beharko duela.

Aizpuru andereak delegazio aurrekontuko kredituen mugetan kokatzen dela ihardetsi dio.

Duthilleul jaunak lehentasunez erosteko eskubideei buruzko 15. puntuaz galdera egin du. Aitzineko agintaldian delegazioak soilik balio zuen herri izaera zuten proiektuei ematen zitzaizkien ezezko erabakientzat. Gaur egun aipamen hori desagertu da, eta horrek erran nahi du erabakia halakoa edo bestelakoa izanik ere Auzapezak lehentasunez erosteko eskubidea balia dezakeela. Azalpenak eskatu ditu.

Aizpuru andereak ihardetsi dio testua hala agertzen dela kodean.

Zerbitzuetako zuzendari nagusiak zehaztu du aitzineko agintaldian eskumen hori ez zela delegazioz eman.

Duthilleul jaunak baieztatu du eskumen hori 2014ko apirilko erabaki batean agertzen zela.

Aizpuru andereak erantzun dio delegazioei buruzko azken erabakiak 2019ko apirilko Herri Biltzarrean hartu zirela, Auzapezaren izendapenaren ondotik.

Beyrie andereak galdetu du noiz erraten zaion Herri Biltzarrari lehentasunez erosteko eskubide hori baliatzeko asmoa dagoela.

Aizpuru andereak ihardetsi dio delegazioa dela-eta, Herri Biltzarrak jakiten duela erabakia jadanik hartua izan delarik.

Beyrie anderearen aburuz, beraz ez dago asmorik (intentziorik) lehenik gehiengokoak ez diren biltzarkideak jakinean ezartzeko, proiektu horiek garrantzitsuak izan daitezkeelarik ere.

Aizpuru andereak erantzun dio delegazioari esker Auzapezak lehentasunez erosteko eskubidea balia dezakeela aurretiaz herri biltzarrari jakitera eman gabe.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehaztu du Herri Biltzarrak Auzapezari delegazioa eman dion unetik, honek erabakia har dezakeela, eta gero berari dagokio Herri Biltzarkideei erabaki horren berri ematea.

Beyrie andereak ohartarazi du oposizioko taldearentzat, gehiengokoa ez denez, arrisku handia dagoela Auzapezak eta bere taldeak egin hautuen berri oso berant jakiteko.

Aizpuru andereak araua frantses LKKOko L-2122-22 artikulua finkatzen duela.

Alaman jaunak gehitu du lehentasunez erosteko eskubide hori herri batean oso inportantea izan daitekeela, herriarentzako lurak erosteko eta proiektu batzuen egiteko; eta delegazio horren esparruan, Auzapezak bakarrik erabaki dezakeela aurretiaz eginen duenaren berri eman gabe.

Aizpuru andereak zehaztu du gaur egun lehentasunez erosteko eskubidea nagusiki Euskal Elkargoak duela erabiltzen. Herriak herri izaerako proiektuentzat soilik egin dezake. Ondorioz, lehentasunez erosteko eskubide hori biziki mugatua da.

Jean-Noël Magis jaunak adierazi du Euskal Elkargoak lehentasunez erosteko eskubidea herriari itzultzen ahalko diola herriko proiektuentzat, eta proiektu handiak izanen direnean herriak batzordean eztabaidatzeko aukera izanen duela, elkargoari bere asmoa jakinaraziz, elkargoak herriaren izenean lehentasunez erosteko eskubidea balia dezan.

Jean-Paul Alaman jaunak ohartarazi du 18. puntuan tokiko lur funtsen erakundeei erreferentzia egiten zaiela eta artikulu horren nondik norakoez argipenak eskatu ditu. Erran du ere pertsonalki erakunde horrekin lan egiten duela, eta herriaren etorkizunari eta jokagaiei begira badakiela erakunde hori Euskal Elkargotik gero eta hurbilago dela. Zer erran nahi du « tokiko lur funtsen erakunde publiko batek burutuko dituen ekintzei buruzko herriaren aurretiko iritzia »? Gaur egun Euskal Elkargoak agindu ditzakeen funtsei buruzko ikerketa edo analisientzat ToLFEP-ak (EPFL) Kanbori buruzko aurre-ikerketa bat egin dezake eta Auzapezaren iritzia eskatu, eta honek erabakia har dezake Herri Biltzarraren onespenez gabe.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak testuaren *stricto sensu* irakurketa egin du. Izan ere, ToLFEP-ak lurak eros ditzake eta horretarako Herri Biltzarraren iritzia eskatu behar du. Gaitasun hori da, hain zuzen, auzapezari delegatu zaiona. Magis jaunak erran duen bezala, proiektuak sail handiak baldin baditu jokoan, ez dago premiarik segidan iritzi baten emateko eta eskaera batzordean aztertzen ahalko da. Oronen buru, ToLFEP-ak eskatuko duenaren izaera eta neurriaren arabera egingen da.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Philippe Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

## **5 – Auzapezaren, ordean eta kontseilari delegatuen ordain sariak.**

Aizpuru andereak jakitera ematen du ohar osagarri bat zabaldu zaiela biltzarkideei, zenbatekoak azalduz gardentasuna bermatzeko. Zehaztu du lehen oharrarekiko aldaketarik ez dagoela, eta informazio gehigarria besterik ez dela. Dokumentuari ere erantsi zaio gehiengoko hautetsien zerrenda eta bakoitzak 2020-2026 agintaldirako izanen dituen funtzio delegazioak.

Frantses Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2123-20, L2123-22, L2123-23 eta L2123-24 artikuluen arabera, Herri Biltzarrak Auzapezaren, ordean eta Kontseilarien ordain sarien zenbatekoak bozkatu behar ditu.

Zehaztu du:

- ordain sari horiek automatikoki berrikusiko direla funtzionarioei aplikatzen zaien 100 indize emendatuaren arabera,
- auzapeza eta ordeak beren funtzioak hartu dituztenetik ordainduko direla,
- gastu hori herriko aurrekontuko 6531 artikuluan sartuko dela.

Aizpuru andereak oroitarazi du Kanbo herria 3 500 eta 9 999 biztanle arteko sail demografikoan kokatzen dela; urteko ordain sari gehiena (2017ko urtarrilaren 26ko 2017-85, 2017ko abenduaren 21eko 2017-1736 eta 2017-1737 dekretuak – 2019ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean) honakoa da:

- 1027 indize gordinaren %55, hots 25 670,04 € (gordin) Auzapezarentzat,
- 1027 indize gordinaren %22, hots 10 268,02 € (gordin) zortzi ordeetariko bakoitzarentzat, orotara 82 144,14 €.

Beraz, urteko ordain sarien gehienezko zenbateko gordina 107 814,19 €takoa izanen da.

Aizpuru andereak biltzarkideei proposatu die funtzio ordain sariei buruzko iritzia ematea, betiere horretarako aurreikusi den diru zama errespetatuz eta ordain sari horiek honela ematea:

- Auzapeza: funtzio ordain saria, frantses Funtzio Publikoko eskalako azken indize gordinari dagokion sariaren %49,34ekoa,
- ordeei: funtzio ordain saria, frantses Funtzio Publikoko eskalako azken indize gordinari dagokion sariaren %15ekoa,
- delegazioa duten herri kontseilariet: funtzio ordain saria, frantses Funtzio Publikoko eskalako azken indize gordinari dagokion sariaren %3,54ekoa,

Beraz, urteko ordain sarien zenbateko orokor gordina 92 253,49 €takoa izanen da.

Hiriart-Urruty andereak galdetu ea Auzapez jaunari dagokion ordain sari garbian (1 867,24 €) turismo estazioei dagokien %25eko emendatzea kontuan hartu denez.

Aizpuru andereak baietz ihardetsi dio eta zehaztu ere zenbateko hori zergak ordaindu aitzinekoa dela. Ordeek 630,84 € eskuratuko dituzte eta kontseilari delegatuek 119,11 € garbi zerga aitzin.

Hiriart-Urruty anderea ondoko puntu batean ohartu da hautetsiek beren ordain sariak itzuliko dituztela Kanboko ekonomiari bultzada baten emateko eta oposizioko taldearen izenean eskertzen ditu. Gehiengoko hautetsi batzuk orde izanen dira eta beste batzuek delegazioak izanen dituzte. Nola partekatuko da haien artean hautetsi funtzioetarako denbora? Nola funtzionatuko du Kanboko herriko etxeak? Auzapezak permanentzia egunak egingen ditu? Nola antolatuko dira ordeak? Orain arte, Vincent Bru joan denetik eta Jouglex anderearen eritasunaren ondotik, jende guti izan da herriko etxe honetan. Jakin nahiko luke ea gehiengoko hautetsiek pentsatua ote duten zenbat denbora emanen duten herriko etxean.

Aizpuru andereak zehaztu du ez duela Auzapezaren izenean hitz egingen, ezta beste hautetsien izenean ere. Galdera zilegi da eta arrapostu bat emanen zaio, hautetsi bakoitzak bere eginkizunaren betetzeko beharko duen denboraren estimazioa eginga izanen duenean.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du Auzapez batek edo orde batek, kargua hartzen duenean badakiela denbora eman beharko duela.

Aizpuru andereak ihardetsi dio hauteskudeen biharamunean konfinamendua izan dela, eta deskonfinamendutik formalismoa landu behar izan dela nork bere funtzioak betetzen hasi aitzin.

Beyrie andereak dio zaila dela bozkatzea, gehiengoko taldeak ez baitu erraten zenbat denbora emanen duten bere eginkizuna betetzeko. Ordain sari bat bozkatuko da jakin gabe zenbateraino engaiatuko diren eta zer presentzia izanen duten.

Irastorza jaunak gehitu du orde eta hautetsi gisa astelehenero 3 orduko bilkurak badituela herriko etxean auzapezarekin. Horri gehitu behar zaizkiola kanpoan egiten diren bilkurak, elkarteekilakoak. Ez du pertsonalki permanentziarik egin, baina elkarteen eskura egon da beti berarekin egon nahi badute.

Hiriart-Urruty andereak pentsatzen du hemendik aurrerako lana antolatu behar dela. Oraingo auzapeza gutitan zegoen herriko etxean. Kanpaina denboran bere lan ordutegia aldatzera engaiatu zen, eskuragarriago izateko. Espero zuen arrats honetako bilkuran erantzun bat emanen zuela. Auzapeza gaur ez dago bilkuran, baina halere deitoratzen du gehiengoko hautetsiek ez baitute horretaz eztabaidarik izan.

Irastorza jaunak ihardetsi dio Auzapezak datorren biltzarrean emanen dizkiola bere disponibilitateak.

Hiriart-Urruty andereak ez duela pertsonalki arrangurarik, baina Kanboar zenbaitek galdetzen duten gauza dela.

Irastorza jaunak ihardetsi dio ongi legokeela kanboarrek beren galderak zuzenean gehiengoari egitea eta orduan arrapostu emanen zaiela.

Duthilleul jaunak Frantziako Turismo Kodeko L.133-13 artikulua irakurri du: «Turismo estazio sailkatuak izanen dira eta azpi-atal honen xedapenak aplikatuko zaizkie, soilik turismo harrera, informazio eta sustapen politika aktiboa garatuko duten herri edo herri zatiei, batetik beren lurraldeko eta urte osoan zehar turismoa segurtatzeko, eta bestetik beren natura, ondare, kultur animazio eta sorkuntza baliabideak, nola kirol jarduerak balioan ezartzeko». Galdetu du zein den gehiengoaren programa, Auzapezaren eta ordean ordain sarien %25ez emendatzea justifikatuko lukeena.

Irastorza jaunak hori testuetan dagoela.

Duthilleul jaunak eta Hiriart-Urruty andereak zehaztu dute emendatzea ez dela derrigorrezkoa.

Duthilleul jaunak ez du emendatzea zalantzan ezartzen. Gehiengoak hautu hori egin du, baina zeren truke? Kanboarrei erraten bazaie %25eko emendatzea dutela, gehienek ez dakite. Trukean lan bat egin behar bada, normala da kanboarrek galdera pausatzea.

Aizpuru andereak ihardetsi dio galderak behar den lekuan pausatu behar dituztela.

Duthilleul jaunak ohartarazi du oposizioko taldea bozkatu dutenen %47aren bitartekaria dela.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

## **Gehiengoz onartua.**

Bozkan parte hartu ez dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

Aizpuru andereak Herri Biltzarrari proposatu dio:

- auzapezaren eta ordean ordain sariak emendatzea, herria gune turistiko sailkatua delako, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2123-22, R.2123-23 artikuluen arabera.

- honako emendatzeak onartzea,

- Auzapeza: funtzio ordain saria, frantses Funtzio Publikoko eskalako azken indize gordinari dagokion sariaren %49,34ekoa, %25ez emendatua,
- ordeei: funtzio ordain saria, frantses Funtzio Publikoko eskalako azken indize gordinari dagokion sariaren %15ekoa, %25ez emendatua,
- delegazioa duten herri kontseilariei: funtzio ordain saria, frantses Funtzio Publikoko eskalako azken indize gordinari dagokion sariaren %3,54ekoa,

Beraz, urteko ordain sarien zenbateko orokor gordina 112 012,41 €tako izanen da.

Duthilleul jaunak %25eko emendatzea justifikatzeko programa eskaerari ez baitzaio erantzunik eman, Hiriart-Urruty andereak galdetu du zer egin den iragan agintaldian.

Aizpuru andereak erantzun dio Kanbon turismoa osasun onean dela.

Hiriart-Urruty andereak adierazi du Kanbok baduela Turismo bulego bat bere langileekin, ur onen egitura bat zuzendari batekin eta langileekin, eta herriko etxea gabe funtzionatzen dutela. Zer egiten du gehiengoko taldeak?

Aizpuru andereak ihardetsi dio azken urteetan termak anitz bilakatu direla eta ondorioz turismoa ere. Bistan da ur onen dinamismoa egitura berari zor zaiola, baina herriko etxea beti hor izan da laguntzeko, hala nola 2014ko uholdeen kasuan.

Hiriart-Urruty andereak gehitu du herriak termetan eginikoak ez duela deus ikustekorik %25eko emendatzearekin. Emendatze hori turismoari eta animazioei lotua dela. Zer aldaketa izanen da emendatze hori ezartzearekin? Zer da eginen den lan gehigarria? Zer ekintza? Zer proiektu?

Aizpuru andereak ihardetsi dio %25eko emendatzea betidanik eman dela.

Goytino jaunak dio biziki zaila dela adibide zehatzen ematea. Kanbo herri erakargarria da, baita turismo mailan ere, ekintza multzo bati esker. Osotasun bat da: gaur egun sailkatuak diren eraikinen egokitzapenak, batzuei eta besteei ematen zaizkien zerbitzuak.

Lassus jaunak azpimarratzen du bere ustez oposizioak aipatzen duen testuak hauxe dioela: turismo estazio sailkatuak diren herrietan emendatze bat izan daitekeela. Justifikazioa ez da beraz « zer egin duzue? » baina « zer egiteko asmoa duzue? ». Orduan, ikusirik zenbat jaialdi antolatzen diren Kanbon, zenbat animazio, uste du emendatzea justifikatua dela, herri turistiko batean hautetsiek lan gehiago dutelako, eta Duthilleul jaunak gai desberdinak zerrendatu ditu jadanik. Kanbok gai guztiak hunkitzen ditu. Emendatzea justifikatzen da turismo estazio sailkatuak ez diren herrietako hautetsiek egiteko horiek ez dituztelako. Bere ustez, turismoak eta animazioek lan gehigarria ematen dute. Berak hala ulertzen du testua. Irizpide horiek betetzen dituzten herriek emendatzea eman dezakete.

Duthilleul jaunak arrapostu dio, alderantziz turismo estazio sailkatuak ez diren herriek ere kultur, turismo eta kirol ekintzak egiten dituztela. Hala sailkatua ez den herri batek Kanbok dituen hertsapen berak dituela.

Aizpuru andereak eztabaida hetsi eta bozkara eman du.

## **Gehiengoz onartua.**

Bozkan parte hartu ez dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

Hautetsi bakoitzari eman zaion taulan Hiriart-Urruty andereak Devèze jauna ikusten du Euskal Elkargoko delegatu, eta bigarrena nor den galdetu du.

Aizpuru andereak ihardetsi dio Euskal Elkargorako delegatuak zerrendako lehen biak izan ohi direla, beraz Devèze eta Aizpuru anderea bera.

## **6 – Eskaera publikoaren barne araudia.**

Aizpuru andereak azaldu du laburpen taula berria banatu zaiela biltzarkideei, eta aldaketa txiki bat dagoela izenpeduren zutabean CAO lerroan. Biltzarkide guziei solasgaiekin batera igorri zitzaizen oharra irakurri du.

Eskaera publikoari buruzko Euskal Elkargoko zuzentarauak eta izenburu bereko kodea segituz, lurralde erakundeek iragarpen eta lehiaren aldeko betebeharrak dituzte. Halere, lurralde erakundeek aukera dute beren erosketa politikaren esparrua erabakitzeko, bereziki prozedura beharturik ez dagoenean.

Lurralde erakundeek onartzen zaien malgutasun hori dela-eta, Kanbo herriak barne arau batzuk finkatu nahi ditu, erosketen eraginkortasuna bermatzeko. Honako araudian ematen diren arauen xedeetako bat da hautetsiei eta herriko langileei merkatu publikoen arauak ezagutaraztea.

Herri Biltzarrari eskatu zaio eskaera publikoaren araudia onartzea.

Bacardatz jaunak zalantzak ditu deialdien iragarpenei buruz. Hitzarmenari datxikon taulan dauden informazioek lege esparrua azaltzen dute, hots merkatu mota bakoitzean iragarpenari dagokionez bete beharreko gutxieneko baldintzak. Galdetu du ea posible den herriko webgunean deialdien atal baten sortzea, bertako enpresek informazioa ukan dezaten eta ondorioz erantzun ahal izan dezaten. Bere lehen agintaldian ohartu da bertako enpresa gutxi aurkezten dela deialdietara.

Aizpuru andereak uste du deialdien iragarpenak arautuak direla eta ez du uste posible denik bestelako publizitate baten egitea.

Zerbitzuen Zuzendari Nagusiak zehaztu du 90 000 €tik gorago merkatu publikoen iragarpenek arauak bete behar dituztela Zenbateko horretatik beheiti iragarpena merkatuari egokitu dakioke, izaerari, hedapenari eta abar. Araudiak eta taulak iragarpenerako hainbat neurri zehazten dituzte. Jakin behar da 40 000€tik gora prozedura guztiak Internet bidez egiten direla, erosleen webgune berezi batean, non herriak bere eskaintzak ezartzen dituen eta izena emana duten enpresek proposamenak egin ditzaketen. Gehienek hori badakite, izena emana dute eta erregularri webgune horretatik informazioa eskuratzen dute. Enpresa bakoitzak egin behar du webgune horretan bere izen ematea. Ganberek informazioa zabaldu zuten horri buruz. Herriak Internet bidea baliatzen duen heinean, plazaratuko dituen deialdiak sistematikoki agertuko dira herriko webgunean. Izan ere, herriak deialdien webgunean ezartzen dituen deialdiak agertu nahi ditu bere webgunean.

Bacardatz jaunak zehatu du herriko lanak diru publikoarekin diruztatzen direla, eta gutxienekoa litzatekeela bertako enpresek deialdiei erantzutea herriko ekonomia ibilarazteko.

Aizpuru anderea ohartu da bertako enpresek, beste eskualdeetakoek ez bezala, ez dituztela deialdiak ikusten. Pentsatzen du enpresetan behaketa bat ezarri behar dutela deialdien berri ukateko.

Alaman jaunak gehitu du arazo hori ez dela Kanbon bakarrik gertatzen, baina landa eremu guztietan. Internet bidezko urraspide horiek korapilatsuak dira bakarrik edo langile bakar batekin lan egiten duen ofiziale batentzat. Informazioa eskuratzeko eta gero erantzuteko informatika ezagutza maila bat behar da. Erakundeek eskatzen duten formalismo hori aski pizua da. Galdera litzateke « zer egin dezake lurralde erakunde batek bilakaera digitala hobetzeko? ». Menturaz ofizialeak informatzea, laguntzea, ...

Aizpuru andereak azpimarratu du ofizialeek beren federazioak dituztela eta menturaz horien lana dela laguntza horren eskaintzea, hain korapilatsuak diren urraspideak egin ahal izateko. Gehitu du hautetsi batek ofizialeen ardura duela eta gai horiek landuko dituela.

Herriak 100 000 euro inguru lan egiten ditu bere zerbitzuekin. Covid-19aren krisialdiari aurre egiteko Bacardatz jaunak galdetu du ea ez ote den posible aurten lan horiek enpresei ematea, ekonomiari bultzada baten emateko.

Aizpuru andereak ihardetsi dio 2020ko aurrekontuaren egitea biziki korapilotsua dela. Urte hau ez da besteak bezalakoa. Gainera herriak garestiago kostatuko diren lanak egingo baditu, finantzen orde gisa uste du herriak zailtasunak izanen dituela.

Bacardatz jaunak ohartarazi du herriko langileek martxotik maiatzera ez dutela %100ean lan egin. Herriko zerbitzuekin eginez ekoizpen ahalmena ahuldu da. Herriak gogoetatu beharko luke ea aurten ez ote litzatekeen hobeki lan txiki batzuk enpresei ematea aurreikusiak diren inbertsioak egiteko orde. Gogoetatu beharrekoa da, zeren bertako merkatariak laguntza beharko baitute. Herriaren ardura da ekonomia bultzatzea eta diru publikoa bertako ofizialeetara luzatzea.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zer diferentzia dagoen bi taulen artean.

Aizpuru andereak erantzun dio CAO lerroetako izenpeduran dela diferentzia. Lehen taulan « erabakia » idatzia da, eta bigarrean « Auzapezak edo ordeak delegazio bidez ». Deialdien batzordeak eskaintzak balioesten ditu eta ondotik auzapezak du merkatua izenpetzen. Herri Biltzarrak ez du erabakirik eman behar, zeren Deialdi Batzordearen erabakia berretsi baizik ez bailuke eginen.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazten du, beraz kopuru handiko deialdientzat Herri Biltzarrak ez duela bere onespina emanen.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak oroitarazi du Herri Biltzarrak Auzapez jaunari delegazioa eman diola merkatuak prestatzeko eta gauzatzeko, baita gerta litezkeen emendakinei buruzko erabakia ere, baldin eta kredituak aurrekontuan aurreikusiak badira. Ondorioz, Auzapezak ditu merkatuak izenpetuko. Alabaina, zehatzen du prozedura formalizatuen kasuan Deialdien Batzordeak duela esleipen botera, eta auzapezak hautu hori berretsiko duela bere erabaki baten bidez eta merkatua izenpetuko du. Prozedura formalizatuen kopuruetatik beheiti diren merkatuen kasuetan ordea, Deialdien Batzordea ez dela baitezpada bildu behar, baina eskaintzak aztertzekeo tresna interesgarria izan ohi da. Inportanteena da 40 000 € ZKtik gora batzordea bildu behar dela. Gehitu du auzapezak delegazioaren baitan hartu dituen erabakien berri emanen duela.

Beyrie andereak arrats honetan hartu diren erabakiei buruzko kezka berretsi du. Batzordearen eta erabakiaren artean ez dago gehiago bitartekorik. Horrek erran nahi du eztabaida ez dela gehiago publikoa, Herri Biltzarrak publikoari irekiak baitira. Bere aburuz gardentasuna eskas da.



Aizpuru andereak zehaztu du, lehen deialdien txostenak Herri Biltzarrean erabakitzen zirelarik, batzordearen erabakia segitzen zela. Egia da batzordea ez dela publikoa, hori da zure galderaren bigarren puntua.

Bacardatz jaunak zehatu du aitzineko agintaldian deialdi txosten guztiak ondoko Herri Biltzarrean bozkatzen zirela. Batzordeak iritzia ematen zuen eta gero eztabaida bat bazegoen Herri Biltzarrean. Gaur egun, deialdi batzordearen ondotik Auzapezak merkatua izenpetuko du enprekin Herri Biltzarretik pasa gabe? Eta bere taldea ez badago ados deialdi batzordearekin, oposizioaren proposamena ez da agertuko ere.

Hiriart-Urruty andereak jakin nahiko luke zergatik egin den aldaketa hori.

Aizpuru andereak ihardetsi dio erabakien sinplifikatzeko eta fiteago hartzeko.

Antolaketa berria dela-eta, Bacardatz jaunak ohartarazi du ondorioz bere taldeak sistematikoki solasgaietako bestelako gaietan sartuko dituela deialdi batzordeari aurkeztu zaizkion txosten guztiak, eztabaida bat izan dadin eta kanboar guztiek horien berri izan dezaten.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du merkatu bat izenpetzen denean nahitaez ondoko Herri Biltzarrean horren berri emanen dela. Ondorioz, informazioa emana izanen da.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

## **Gehiengoz onartua.**

Kontra bozkatu dutenak : Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du bere taldeak Herri Biltzarrak Auzapezari delegazioak emateko eskaeraren kontra bozkatu zuela, ahalmen handiegia zelako, eta oraingoan gauza bera gertatzen da.

## **7- Deialdien Batzordea: kideen izendapena.**

Herri Biltzarrak Deialdien Batzordeko kideak hautatu behar ditu, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1414-1 eta ondoko artikuluen arabera beharrezkoa baita.

Kanbon 3 500 biztanle baino gehiago dago. Aizpuru andereak batzordearen osaketa azaldu du: auzapeza edo bere ordezkoa, Herri Biltzarrak hautaturiko 5 ordezkari titular ordezkari proportzionalean eta bost ordezkari ordezkari titularren ordezkatzeko hauek ezin badute parte hartu.

Deialdi batzordeko kide titularrak zerrendak bozkatuko dira, ordezkari proportzionalean gorenera borobilduta eta ez nahasketa ezta bozka lehenetsirik gabe.

Biltzarkideei eskatu die deialdi batzorderako beren hautagaien zerrendak aurkeztea.

« Unis pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Jean-Noël Magis, Jean-Paul Eyherachar, Eliane Aizpuru, Didier Irastorza, titular gisa;

Yolande Huguenard, Christiane Hargain-Desperies, Maud Gastigard, Véronique Cadepond-Larronde, ordezkari gisa.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Philippe Bacardatz, titular gisa ;  
Jean-Paul Alaman, ordezkari gisa.

Sekretu peko bozka eta zenbaketa egin dira:

Bozkatzaile kopurua..... 29  
Baliogabeak..... 0  
Bozka kopurua ..... 29

Honela banatuak dira:

« Unis pour Cambo » zerrendak 22 boz ukan ditu  
« Nahi Dugun Herria » zerrendak 7 boz ukan ditu

Ondorioz, honakoak izendatuak dira:

Titularrak	Ordezkoak
Jean-Noël MAGIS	Yolande HUGUENARD
Jean-Paul EYHERACHAR	Christiane HARGAIN-DESPERIES
Eliane AIZPURU	Maud GASTIGARD
Didier IRASTORZA	Véronique CADEPOND-LARRONDE
Philippe BACARDATZ	Jean-Paul ALAMAN

## 8 – Prozedura egokituko Deialdien Batzordea (MAPA): kideen izendapena.

Aizpuru andereak biltzarkideei proposatu die Prozedura Egokituko Deialdien Batzorde (MAPA) bat sortzea eta horko kideak izendatzea (bost titular eta bost ordezko) deialdi batzordearen baldintza berdinetan.

Prozedura Egokituko Deialdien batzordeko kide titularrak zerrendaka bozkatuko dira, ordezkari gisa proportzionalean gorenera borobilduta eta ez nahasketa ezta bozka lehenetsirik gabe.

Biltzarkideei eskatu die prozedura egokituko deialdien batzorderako beren hautagaien zerrendak aurkeztea.

« Unis pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Jean-Noël Magis, Jean-Paul Eyherachar, Eliane Aizpuru, Didier Irastorza, titular gisa;  
Yolande Huguenard, Christiane Hargain-Desperies, Maud Gastigard, Véronique Cadepond-Larronde, ordezkari gisa.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Philippe Bacardatz, titular gisa ;  
Jean-Paul Alaman, ordezkari gisa.

Sekretu peko bozka eta zenbaketa egin dira:

Bozkatzaile kopurua..... 29

Baliogabeak.....	0
Bozka kopurua .....	29

Honela banatuak dira:

« Unis pour Cambo » zerrendak 22 boz ukan ditu  
 « Nahi Dugun Herria» zerrendak 7 boz ukan ditu

Ondorioz, honakoak izendatuak dira:

Titularrak	Ordezkoak
Jean-Noël MAGIS	Yolande HUGUENARD
Jean-Paul EYHERACHAR	Christiane HARGAIN-DESPERIES
Eliane AIZPURU	Maud GASTIGARD
Didier IRASTORZA	Véronique CADEPOND-LARRONDE
Philippe BACARDATZ	Jean-Paul ALAMAN

## 9 – Zerbitzu Publikoko Delegazioen batzorde berezia (DSP): kideen izendapena.

Aizpuru andereak biltzarkideei proposatu die zerbitzu publikoko delegazioen batzorde (DSP) bat sortzea eta horko kideak izendatzea (bost titular eta bost ordezko) deialdi batzordearen baldintza berdinetan.

Zerbitzu publikoko delegazioen batzordeko kide titularrak zerrendaka bozkatuko dira, ordezkari-tza proportzionalean gorenera borobildua eta ez nahasketa ezta bozka lehenetsirik gabe.

Biltzarkideei eskatu die zerbitzu publikoko delegazioen batzorderako beren hautagaien zerrendak aurkeztea.

« Unis pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Jean-Noël Magis, Jean-Paul Eyherachar, Eliane Aizpuru, Didier Irastorza, titular gisa;  
 Yolande Huguenard, Christiane Hargain-Desperies, Maud Gastigard, Véronique Cadepond-Larronde, ordezkari gisa.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Philippe Bacardatz, titular gisa ;  
 Jean-Paul Alaman, ordezkari gisa.

Sekretu peko bozka eta zenbaketa egin dira:

Bozkatzaile kopurua.....	29
Baliogabeak.....	0
Bozka kopurua .....	29

Honela banatuak dira:

« Unis pour Cambo » zerrendak 22 boz ukan ditu  
 « Nahi Dugun Herria» zerrendak 7 boz ukan ditu

Ondorioz, honakoak izendatuak dira:

Titularrak	Ordezkoak
Jean-Noël MAGIS	Yolande HUGUENARD
Jean-Paul EYHERACHAR	Christiane HARGAIN-DESPERIES
Eliane AIZPURU	Maud GASTIGARD
Didier IRASTORZA	Véronique CADEPOND-LARRONDE
Philippe BACARDATZ	Jean-Paul ALAMAN

## 10 – G.E.U.Z. (CCAS): ordezkarien izendapena.

Aizpuru andereak jakitera ematen du GEUZ-eko Administrazio Kontseilua osatzeko eta indarrean ezartzeko arauak Herri Biltzarrak finkatzen dituela (Frantziako Gizarte Ekintza eta Familien kodeko L.123-6 eta R.123-7 artikulua eta ondorengoak).

Auzapezaz aparte, GEUZ-eko eskubide osoko Presidentea dena, Administrazio Kontseilua kopuru berdinetan honela osatua da:

- Herri Biltzarkideetako gehienez 8 eta gutxienez 4, biltzarkideek hautaturik,
- Herri Biltzarkide ez diren gehienez 8 eta gutxienez 4 pertsona Auzapezak hautaturik.

Beraz, GEUZ-eko Administrazio Kontseiluko kideen kopurua finkatu behar da eta ordezkari izanen diren biltzarkideak izendatu.

Aizpuru andereak GEUZ-eko Administrazio Kontseiluko kideen kopurua hamaseitan finkatzea proposatu du, jakinez erdia baizik ez dela Herri Biltzarkideen artean hautatuko eta beste erdia Auzapezak izendatuko duela.

Zehaztu du ere Herri Biltzarrak hautatu kideak zerrendaka bozkatuko direla, ordezkaritza proportzionalan gorenera borobildua eta ez nahasketa ezta bozka lehenetsirik gabe.

Biltzarkideei eskatu die beren hautagaien zerrendak aurkeztea.

« Unis pour Cambo » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Vincent Goytino, Corinne Othatcegy, Carmen Gonzalez, Isabelle Ayerbe, Maud Gastigard, Christiane Hargain-Despéries.

« Nahi Dugun Herria » zerrendak honakoak aurkeztu ditu:

Amaia Beyrie eta Lilian Hirigoyen.

Sekretu peko bozka eta zenbaketa egin dira:

Bozkatzaile kopurua.....	29
Baliogabeak.....	0
Bozka kopurua .....	29

Honela banatuak dira:

« Unis pour Cambo » zerrendak 22 boz ukan ditu

« Nahi Dugun Herria » zerrendak 7 boz ukan ditu

Ondorioz, honakoak izendatuak dira:

- Vincent GOYTINO,
- Corinne OTHATCEGUY,
- Carmen GONZALEZ,

- Isabelle AYERBE,
- Maud GASTIGARD,
- Christiane HARGAIN-DESPERIES
- Amaia BEYRIE
- Lilian HIRIGOYEN

## **11 – Eskolentzako kutxa: ordezkarien izendapena.**

Herri Biltzarrari eskatu dio Eskoletako Kutxarako lau ordezkari izendatzea, Auzapezaz aparte, kutxa presidentea izan behar baita.

Proportzionaltasunaren arabera, gorenera borobildua, Aizpuru andereak proposatzen du gehiengoko hiru ordezkari eta oposizioko bat izendatzea:

- Marie ARISTIZABAL,
- Nicole AMESTOY,
- Véronique CADEPOND-LARRONDE,
- Lilian HIRIGOYEN

Biltzarkide guztiek hala eskaturik bozka eskua altxatuz egin da.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

### **Aho batez onartua.**

## **12 – GEUZ-ari diru laguntza aurrerapena.**

2020ko ekainaren 4ean GEUZ-ak eskaturik, 2020ko hasierako aurrekontua bozkatu artean, biltzarkideei proposatzen die GEUZ-ari dagokion diru laguntzaren 25 000 € aurreratzea.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

### **Aho batez onartua.**

## **13 – Herriko forfetaren ordaintzeko modalitateak.**

Aizpuru andereak biltzarkideei oroitarazten die herriak Sainte Marie eskola pribatuari eta Errobi Ikastolari diru laguntza bat ematen diela herrian bizi diren haurrentzat.

Covid-19 osasun krisia dela-eta, proposatzen du herriaren laguntza hori (2019-2020 ikasturtekoa) ohikoa ez den bezala aldi bakar batean ematea, hots uztailea hondarrean.

Etorkizunean bi alditan emanen da, (apirilean eta uztailean) %50 aldi bakoitzean.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

### **Aho batez onartua.**

## **14 – Turismo Bulegoa: 2017-2019 helburu hitzarmenari 1. eranskina.**

Aizpuru andereak oroitarazi du 2017an Kanbo Herriak eta Kanboko Turismo Bulegoak hiru urteko helburu hitzarmen bat izenpetu zutela. Hitzarmen horretan, herriak Turismo Bulegoari ematen dizkion diru laguntzen helburua, zenbatekoa eta erabiltzeko baldintzak zehazten zituzten, Turismo Bulegoak bere eginkizunak egin ditzan eta lehen kategoriako sailkapenean egon dadin.

2020 hauteskunde urtea izanik, 2017-2019 hiru urteko hitzarmena 2020ra luzatzea eskatzen du, hauteskundeak pasa eta gehiengo berriarekin 2021-2023 aldirako estrategia berria zehazteko.

Horregatik, 2017-2019 hitzarmena urte betez luzatzeko hitzarmenari emendakin bat egin behar zaio.

Herri Biltzarrak urtero bozkatzeko du Turismo Bulegoari emanen dion laguntza, eta honen eskariz kontu nagusi batetik ordaintzen du, lehen seihilekoan gutxienez %50 emanez altxortegi beharrei aurre egiteko. 2020an, eta Covid 19 izurritea kontuan izanik, Turismo Bulegoak ezin izan du lehen seihilekoko %50a eskatu. Urte osoko beharrak neurtu artean, langabezia partzialaren ebaluazioa eta jardueran izan den inpaktua kontuan izanik, 100 000 € euroko lehen emate bat egin behar da.

Orain arte azaldu denaren arabera, 2. emendakin bat aztertuko dugu Herri Biltzarrean 2020 urteko diru laguntza osoaren zenbatekoa erabakitzeko.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **15 – Bertako merkataritzaren bultzatzeko ekintza: Merkatarien Batasunaren eta Turismo Bulegoaren diru laguntza.**

Aizpuru andereak jakitera eman du herriak 20 000 €ko diru laguntza baten emateko xedea duela Merkatarien Batasunari eta Turismo Bulegoari, Kanboko merkataritzaren jarduerari bultzada baten emateko.

Diru laguntza hori, bi elkarteen aldeko altxortegi aurrerapen bat da, Kanboko biztanleei 10€ko eros-bono baten emateko. Eros-bonoak hautesle zerrendetan izena emana duten 18 urtetik gorako biztanleei igorriko zaizkie, baita zerrenda horietan izena eman ez dutenei baina maskarak banatzean beren xedea jakinarazi dutenei. Eros-bonoak bi elkarre hauekiko bateko kide diren saltoki edo enpresetan erabili ahalko dira. Eros-bonoak 2020ko azaroaren 30a arte erabiltzen ahalko dira. Herriak bi elkarreie emanen dien diru laguntza 50 000 € inguruan neurtzen dugu.

Turismo Bulegoari eta Merkatarien Batasunari emanen zaien diru laguntza horren behin-betiko zenbatekoa diruztatzeko, Auzapezaren, ordean eta kontseilari delegatuen ordain sari garbietatik hartuko da dirua, zenbatekora iritsi arte.

Menturaz bigarren laguntza bat ukan lezakete irailean egiazki gauzatu diren erosketa zenbatekoen arabera. Hirugarren zatia 2021eko urtarrilean emanen zaie, emateko gelditzen dena kitzatzeko. Alderantziz, sekulan 2020ko abenduaren 31an eman den diru laguntza egin diren erosketak baino handiagoa baldin bada, herriak diru laguntza tipituko du edo erabili ez den zatia itzultzea eskatuko du.

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena eman diezaiola hautetsi guztiei igorri zaien hitzarmenaren emendakina bi elkarteekin izenpetzeko, diru laguntza eman ahal izateko.

Duthilleul jaunak galdetu du nork egingen dituen bonoak, nork banatuko dituen eta zenbat kostatuko den.

Aizpuru andereak ihardetsi dio bonoen antolaketa ez dela oraindik zenbatu eta herriak dituela egingen.

Ekintza horren finantzazioaz, Hiriart-Urruty andereak ongi ulertu du Auzapezak, ordeek eta delegatuek beren sarrietatik emanen dutela. Galdetu dio zer erran nahi duen « à due concurrence » adierazpenak.

Aizpuru andereak ihardetsi dio: « zenbatekora iritsi arte ».

Hiriart-Urruty andereak galdetu du horrek zenbat ordain-sari hilabete egiten duen.

Aizpuru andereak gutxi gora behera lau hilabeteko ordain-saria.

Hiriart-Urruty andereak keinua goraiatu eta biziki ongi dela azpimarratu du.

Alaman jaunak eskertu du, eta bi eragin ikusi ditu: hautetsien keinua eta biztanleriaren partehartzea. Ideia bikaina da kanboarrek beren herriko merkatariak ezagut ditzaten. Bere taldeak Covid ondoko garai hauetan espaloiak irekitzeko menturaz gogoetatu du, besteak beste herriko musikariek musika joaz. Kanbon bada ikuskizunetaz bizi diren artista anitz eta hauek ere krisia gordinki bizi dute. Ideia honakoa litzateke: espaloiak irekitzea, uda denboran adibidez, terrazetan musikariak ezarriz, animazio talde txikiekin, terraza batetik bestera mugituko direnak, gehienetan modu akustikoan, adibidez Baionako San Andres plazan egin duten bezala. Aste batzuetako kontua litzateke, arrats bat asteen, adibidez ostiral arratsa 19etatik 21ak arte. Horren aurrekontua ez da handia izanen, eta gainera udan egin behar ziren ekitaldi zenbait deuseztatuak direnez horien aurrekontuak ez dira erabiliko (musikaren besta, kontzertuak, Arnagako su ziriak). Eta ongi ateratzen bada, ondoko urteetan errepika genezake.

Alaman jaunak baluke beste proposamen bate egiteko, herri gunea eta espaloiak erabiltzeko. Proposatzen du, momentu batzuetan eremu batzuk ibilgailuei debekatzea oinezkoak lasaiago ibil daitezen. Hori egin likete animazio taldeak ibiliko diren egun eta oren berean. Udako animazioaz arduratuko direnei luzatzen dizkie bi gogoeta horiek: musika animazioa eta oinezkoentzako behin-behineko eremuak.

Aizpuru andereak eskertzen du proposamenak partekatzeagatik eta gehiengoko taldeak aztertuko dituela jakinarazi du.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

**16 – Prezioen berrikustea Covid-19ari loturik.**

Aizpuru andereak adierazi du Covid 19 krisiaren kalte ekonomikoak izan dituzten enpresak laguntzeko, herriak honako neurriak aurreikusten dituela:

- Asteroko merkatura saltzera etortzen eta abonatuak diren merkatariari 3 hilabetez saria ez ordainaraztea,
- Eremu publikoa ekonomikoki ustiatzeko baimena duten merkatariari 4 hilabetez eremu publiko hori okupatzeko saria ez ordainaraztea,
- Herriko lokalak alokatzen dituzten merkatari eta enpresei alokairu sariak gerorako uztea, sari horiek denboran banatzeko aukerak kasuan kasu aztertuz.
- Taberna, kafe eta jatetxeei kanpoko alde handiagoa erabiltzeko aukera ematea, ahal denean, barnean galtzen dituzten lekuak konpentsatzeko. Honela, eremu publikoa erabiltzen ahalko dute 2020ko iraila bukaera arte, trukean deus ordaindu gabe.
- Mediatekarako abonamenduak bi hilabetez luzatzea, ezen izena emana dutenek bi hilabetez ezin izan baitute erabili hetsia egon baita.

Herri Biltzarrari guzti hauetaz erabakitzea eskatu dio.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

## **Aho batez onartua.**

### **17 – Paskalekuko biribilgunea: hitzarmena Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluarekin.**

Magis jaunak Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea, biltzarkide guztiek eskuratu duten ohar laburtuan aipatzen den hitzarmena Departamendu Kontseiluarekin izenpetzeko, RD 10 / RD 410 eta Paskalekuko errepideen bidegurutzean biribilgune baten egiteko.

Magis jaunak zehaztu du Departamendu Kontseilua mandatari izanen dela, hots, berak duela dena ordainduko eta gero herriak bere zatia emanen diola hitzarmenean zehaztu bezala.

Departamenduko errepideen arautegiaren arabera, Departamenduak bazter eta isurbideen %50, euri uren biltzeko dispositiboaren %50 eta errepidearen berriz egitearen %100 hartzen du bere gain.

Ondorioz, herriak bazter eta isurbideen %50, euri uren %50, espaloi eta eremu berdeen %100, ur ontze sareen egiteko lubakien hustearen %100, eta Paskalekuko bidearen zuzentze lanen %100 hartuko ditu.

Lan horien zenbateko orokorra 507 579 €takoa da Zergak Barne (ZB). Herriak 122 585 € ZB ordainduko du (BEZaren konpentsazio funtsa kenduta) eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak 360 839 € ZB.

Magis jaunak jakitera eman du lur sailen inguruko negoziaketak bukatzeko bidean direla, eta lanak datozen iraila edo urrian hasiko direla.

Aiçaguerre jaunak galdetu du ea proiektu horretan etxe multzo baten eraikuntza kontuan hartua izan den, zeren etxe multzo horretarako sarbidea biribilgunetik aparte gelditzen baita.

Magis jaunak erantzun dio Departamendu Kontseiluari aipatu zitzaizola, eta haren iduriz segurtasun arrazoiengatik ezinezkoa da biribilgunera zuzenean lotzea. Beste sarbide bat Kanbora doan RD410 errepidean aztertuko da.



Alaman jauna ohartzen da ekintza hori ekonomikoki herriaren aldekoa dela eta galdetu du ea Paskalekuko bidearen zuzentzeko lanen kostua 122 585 € horietan sartzen den.

Magis jaunak baietz ihardetsi dio.

Alaman jaunak dio auzo hori anitz garatzen ari dela, etxe multzo ugari badela eta biribilgune horrek trafiko arazo anitz konponduko dituela. Bizkitartean, Kanbora jaisten den departamendu errepidea arriskutsua dela dio oinezko eta bizikletentzat. Auzo horretako biztanleek Kanbora joan nahi badute Termetatik pasatuz, ez dago oinezkoentzako antolamendurik. Horrelako inbertsioa egiten denean, hain proiektu inportantean, zer izan da herriaren nahia auzo horrentzat?.

Magis jaunak gai hori aipatua izan dela. Jakin behar da, gaur egun, Departamendu Kontseilua oinezkoentzako loturak ikertzen ari dela. Departamendu Kontseiluko batzorde iraunkorrean espaloi baten azterketa onartu beharko lukete biribilgunetik Termetarainoko espaloi baten egiteko, eta honela hortik haurrera existitzen denarekin lotura egiteko. Herriak kostuaren %50 hartuko du bere gain. Ipar zatiari dagokionez, bada 50 metroko espaloi hastapen bat. Helburua litzateke lehen zati baten segurtatzea, leku arriskutsua baita. Herriak Departamendu Kontseiluari galdegin dio kalkulatzea zenbat kostatuko lukeen espaloi zati horri Makeako errepideraino luzatzeak. Magis jaunak gehitu du proiektu orokorra batzorde batean aurkeztuko dela. Horrekin bukatzeko, gehitu du hiru autobus geldileku antolatuko direla biribilgunean, Kanbotik eta beste lekuetatik datozen autobusek erabil ditzaten.

Alaman jauna eman zaizkion xehetasunekin satisfos agertu da eta oinezkoen lotura egiteko epea zein den galdetu du.

Magis jaunak erantzun dio hegoaldeko lotura ekaina edo uztailean aurkeztuko dutela batzorde iraunkorrean, eta iparraldekoa aldiz, bere ustez urte hondarrean. Beraz, epe aski laburrak dira.

Aizpuru andereak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **18 – SDEPA : Pouponnière errepidean TB (Tentsio Baxuko) sareen lurperatzea.**

Magis jaunak adierazi du « Syndical Esthétique » (herri urbanoak) 2019 programaren baitan, Herriak Syndicat d’Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari galdegin diola Pouponnière errepidean TB sareen lurperatzeko ikerketa baten egitea.

Herri Biltzarrari eskatu dio gastuen zenbatekoa onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Lanen zenbateko ZB .....	126 549,49 €
SDEPAren partehartzea .....	72 000,00 €
SDEPA bere gain hartzen duen BEZ .....	20 321,82 €
Herriaren partehartzea.....	29 609,08 €
Herriaren partehartzea kudeaketa gastuetan .....	4 618,59 €

Aizpuru andereak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **19 – SDEPA : Pouponnière errepideko TB sareen lurperatzeari oturiko argiteria publikoa.**

Magis jaunak adierazi du « rénovation et création d'éclairage public sécuritaire » (Departamendua) 2019 programaren baitan, Herriak Syndicat d'Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari galdegin diola Pouponnière errepidean TB sareen lurperatzeari loturiko argiteria publikoa ezartzeko ikerketa baten egitea.

Herri Biltzarrari eskatu dio gastuen zenbatekoa onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Lanen zenbateko ZB .....	77 457,75 €
Departamenduaren partehartzea.....	6 000,00 €
F.C.T.V.A .....	12 242,44 €
Herriaren partehartzea.....	56 388,38 €
Herriaren partehartzea kudeaketa gastuetan .....	2 826,93 €

Aizpuru andereak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **20 – SDEPA : Pouponnière errepidean TB sareen lurperatzeari loturiko Orange-n obrak**

Magis jaunak adierazi du « Génie civil communications électroniques option A » 2019 programaren baitan, Herriak Syndicat d'Energie des Pyrénées-Atlantiques (SDEPA) partzuergoari galdegin diola Pouponnière errepidean TB sareen lurperatzeari loturiko Orange-n obrei buruzko ikerketa baten egitea.

Herri Biltzarrari eskatu dio gastuen zenbatekoa onartzea eta lanen diruztatzea bozkatzea.

Lanen zenbatekoa ZB .....	62 519,82 €
Herriaren partehartzea.....	60 238,07 €
Herriaren partehartzea kudeaketa gastuetan .....	2 281,75 €

Aizpuru andereak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

Azken hiru puntu hauei dagokienez, Bacardatz jaunak ohartarazi du urrapside interesgarria dela. Jakin nahiko luke zergatik herriak halako eskaera egin dion SDEPA-ri: arrazoi estetiko edo teknikoengatik.

Magis jaunak erantzun dio biengatik. Herriak baliatu nahi izan duen aukera bat ez galtzea izan da arrazoia.

Bacardatz jaunak gehitu du herri batek errepide lanak egiteko asmoa duenean pentsatu beharko litzatekeela herriko sareen egoera zein den, eta menturaz lanen batzordean hori gogoetatzea. Jadanik aipatu zuen gai hau, hots sareen egoerarena, eta SDEPAri proposatzea sare horiek lurperatzeko diruztatze eskaerak egitea.

Galdetu du ea informazio bilkurarik izanen den bizilagunentzat.

Magis jaunak erantzun dio herria engaiatu zela auzo batean lanak egingen direnean bertako biztanleekin bilkura betan egitera.

Bacardatz jaunak ohartarazten du ongi litekeela lanen batzordeko kideak bertara gomitatzea. Gainera, telekomunikazioei dagokienez, galdetu du ea zuntz optikoa lurperatuko den eta argiteria berrikusiko.

Magis jaunak ihardetsi dio zazpi hodi malgu izanen direla eta horietako bat zuntz optikoarentzat izanen dela. Argiteriari dagokionez, merkatuan 19 led argi aurreikusiak dira, Cardinal Lavigerie karrikakoen antzekoak eremu publikoaren berdintasuna zaintzeko.

Aizpuru andereak datozen herri biltzarren datak eman ditu: 2020ko ekainaren 29a, astelehenarekin, herri batzordeak osatzeko, eta 2020ko uztailaren 16a aurrekontuaren bozkatzeko.

## **– Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Frantses Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen eta 2019ko apirilaren 1eko Herriko Biltzarraren erabakiaren arabera, 2020ko otsailaren 9tik maiatzaren 30era arteko hilerri kontzesioen emate eta berreskuratzei buruzko erabakien berri eman behar da:

- 15 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 4
- 15 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 3
- 30 urterako kontzesio eraberritzea (hilobiak): 4
- Dohainikako lur sailen berreskuratzeak: 7

Hiriart-Urruty andereak galdetu zer pentsatua den Kanboko bestentzat.

Aizpuru andereak erantzun dio momentuz herria Suprefekturaren posturaren zain dagoela, horrek baimendu behar baititu elkarretaratzeak.

Alaman jaunak galdetu du musikaren bestarentzat zerbait pentsatua ote den.

Aizpuru andereak ihardetsi dio herriak ez duela deus antolatzeko baimenik. Eremu publikoa denez, hamar pertsona baino gehiagoko elkarretaratzerik ez.

Aizpuru andereak Herri Biltzarraren saioa 21:40etan hetsi du.